

género de golpes en que el asesino pierde tanto como la víctima, y llegan uno y otro deshonrados á la posteridad».

JULIÁN APRAIZ.

Vitoria y Diciembre 1894.

OROITZ BAT

(NERE ADISKIDE FELIPE ARRESE TA BEITIA, ZENTZU TA BIOTZ AUNDIKOARI)

Bai, Donostian, ondo dakizu non dan arkitzen
 Mendi chiki bat dezuna ezautzen
 Zayona deitzen
San Bartolomé; ez dauka Erniok edo Aizgorrik
 Daukaten aunditasun galantik,
 Ez! ez! baizik
 Bere gañean nik bildutako dauzkat gordiak
 Oroitzak, izan arren neriak
 Iñoiz chikiak.
 Aur nintzanean *Kanpo santua* zegon gañean
 Lau murre sendoren barrenean
 Ta bere aurrean
 Burnizko atia gurutzeduna; arbolak zutik
 Beren adarrak estali nairik
 Eta gorderik...

 ¡Zenbait aldiz arkitzen nintzan toki artan
 Irakurtzen zer zioten letretan
 Obiak bertan;

Igarotzen zuben, orduko aurrak antsiakin
 Isiltasunaren malkoakin
 Biotz guztiakin!
 A! Bañan aztu zaizkit (nola urtiak joan diran)
 A! Bañan joan arren nere barrenian
 Dauzkat gordian
Kanpo Santuko paret batian zeuden bersoak
 Ikatz beltzakin egindakoak;
 Aur ordukoak
 Alako gauz bat barren guztian zuben sentitzen
 Itz neurtu ayek irakurtutzen
 Ziona esaten.

.
 !

Bai, bai Arrese, adiskide erne, leyal nerea
 Eta zentzudun argiz betea,
 Urtiak joanda jakindu nuben
 Zu ziñala
 Parret arrek
 An zeuzkan itzaren egillea.

FRANZISKO LOPEA ALEN.

